

# DOCUMENTO DE VOLUNTADES ANTICIPADAS DVA

## ACCESIBLE UNIVERSAL

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



### ¿QUIÉN PUEDE SOLICITARLO?

Cualquier persona mayor de dieciséis años o menor emancipada que esté capacitada y actúe libremente.

### ¿QUÉ ES Y CÓMO SE REALIZA?

Mediante el 'Documento de Voluntades Anticipadas' puedes elegir los cuidados sanitarios y tratamientos médicos que quieres recibir cuando te encuentres en una situación en la que no puedas expresar tu voluntad porque has perdido tu capacidad.

Es aconsejable que pidas orientación para realizarlo al equipo de medicina, enfermería y trabajo social que te atienden y te conocen. También que lo hables con personas que sean importantes para ti.

Es muy importante que designes una o dos personas **REPRESENTANTES** para que hagan valer lo que tú has escrito.

### ¿CÓMO PUEDO REGISTRARLO?

#### PIDIENDO CITA PREVIA:

- Con profesional de Trabajo Social de los Centros de Salud.
- Para las personas que su atención sanitaria no sea a través del centro de salud, pueden pedir cita en el Servicio de Humanización, Aseguramiento y Coordinación Interdepartamental, que está en la calle Amaya, número 2 A, planta tercera de Pamplona.

#### DE FORMA INDIVIDUAL:

- Con 3 personas que serán testigos, mayores de edad (al menos dos sin relación familiar ni patrimonial).
- En este caso se debe registrar a través de un Registro general del Gobierno de Navarra (telemático o presencial).

#### ANTE NOTARIO:

La notaría enviará tu DVA al registro o te dará una copia autenticada para que la lleves tú misma a cualquier Registro de la Administración.

### ¿CUÁNDO PUEDO HACERLO Y QUÉ PUEDO INCLUIR?

Puedes hacer este documento en cualquier momento de tu vida cuando eres una persona joven y sana, o cuando tengas alguna enfermedad. Es importante que hagas este documento **antes de que no puedas tomar tus propias decisiones o no las puedas expresar** por falta de capacidad.

**En el DVA puedes incluir tus criterios de calidad de vida, valores y creencias personales**, así como situaciones relacionadas con la salud que pueden ocurrir en tu vida, en las que deseas que se tenga en cuenta la aceptación o rechazo de determinados tratamientos y cuidados como, por ejemplo: cuánta información quieres tener sobre tu enfermedad, sobre los cuidados paliativos, la donación de órganos, la eutanasia...

Aunque no es obligatorio, es muy importante que pienses qué situaciones relacionadas con la salud pueden ocurrir en tu vida y cómo quieres que te cuiden.

Para ayudarte en la reflexión y en cómo hacer tu DVA, hemos realizado una **Guía Explicativa**, disponible en **Lectura Fácil** y **diferentes idiomas** así como **lenguaje signado**.

GUÍA EXPLICATIVA EN DIFERENTES IDIOMAS Y MEDIDAS DE ACCESIBILIDAD:

English

Français

Limba română

български език

اللغة باللغة العربية



Puedes ver tu DVA en tu Carpeta Personal de Salud. Tus representantes también tendrán tu DVA en su carpeta de salud, así lo pueden consultar.

Servicio de humanización:

Tel. 848 42 31 98 | 848 42 35 28

Página web:

[www.voluntadesanticipadas.navarra.es](http://www.voluntadesanticipadas.navarra.es)

# AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRIA ABA

## IRISGARRIA UNIBERTSALA

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



### NORK ESKA DEZAKE?

Hamasei urtetik gorakoek edo emantzipatutako adingabeek, gaitasunik aski badute eta libreki ari badira.

### ZER DA ETA NOLA EGITEN DA?

Aurretiazko borondateen agiriaren bidez, hautatu dezakezu zer-nolako osasun-zainketak eta tratamendu medikoak jaso nahi dituzun, baldin eta, gaitasuna galdu ondoko egoera batean, ezin baduzu zure borondatea adierazi.

Komeni da ezagutzen zaituzten mediku, erizain eta gizarte-langileei orientazioa eskatzea agiria betetzeko. Halaber, komeni da zuretzat garrantzitsuak direnekin horri buruz hitz egitea.

Oso garrantzitsua da **ORDEZKARI** bat edo bi izendatzea, zuk idatzitakoa betearazi dezaten.

### NOLA ERREGISTRATU DEZAKET?

#### HITZORDUA ESKATUTA:

- Osasun-etxeko gizarte-langilearekin.
- Osasun-laguntza osasun-etxean jasotzen ez dutenek hitzordua eskatu dezakete Humanizazio, Aseguramendu eta Departamentuarterko Koordinazio Zerbitzuan (Amaia kalea 2 A, hirugarren solairua, Iruña).

#### ZURE KABUZ:

- Lekuko izanen diren hiru pertsonarekin. Adinez nagusiak izan behar dute, eta gutxienez bik ez dute izan behar familia- edo ondare-harremanik zurekin.
- Kasu honetan, Nafarroako Gobernuaren erregistro orokor batean erregistratu behar da (telematika bidez edo aurrez aurre).

#### NOTARIOAREN AURREAN:

Notarioak zure ABA erregistrora igorriko du edo kopia kautotua emanen dizu zuk zeuk eraman dezazun administrazioaren erregistroren batera.

### NOIZ EGIN DEZAKET ETA ZER SARTU DEZAKET?

Agiri hau zure bizitzako edozein unetan egin dezakezu, gazte eta osasuntsua zarenean edo gaixotasunen bat duzunean. Garrantzitsua da agiri hau egitea **zure erabakiak hartzeko eta horiek adierazteko gai zarenean**, gaitasun faltagatik bestelako egoera batera iritsi aurretik.

**ABAn jasotzen ahal duzu zeintzuk diren zure bizi-kalitatearen irizpideak, zure balioak eta sinesmenak**, baita zure bizitzan gertatu daitezkeen eta osasunarekin zerikusia duten egoerak ere, zeinetan zure borondatea adieraziko baituzu tratamendu eta zainketa batzuk onartzeari edo baztertzeari dagokionez; esaterako: zenbat informazio jaso nahi duzun zure gaixotasunari buruz, zainketa aringarriei buruz, organoak emateari buruz, eutanasiari buruz...

Nahitaezkoa ez bada ere, oso garrantzitsua da pentsatzea zer-nolako egoerak gertatzen ahal diren zure bizitzan osasunari loturik, eta nola nahi duzun zu zaintzea.

Hausnarketa horretan eta ABA egiten laguntzeko, **azalpen-gida** bat egin dugu, **irakurketa errazekoa, zenbait hizkuntzatan eta hizkera inklusiboa** erabiliz.

HIZKUNTZA  
DESBERDINETAKO  
AZALPEN-GIDA ETA  
IRISGARRITASUN-  
NEURRIAK:


English

Français

Limba română

български език

اللغة باللغة العربية



Osasun-karpeta pertsonalean ikusten ahal duzu ABA. Zure ordezkariak ere izanen dute zure ABA beren osasun-karpetan, kontsultatu ahal izateko.

Humanizazio-zerbitzua:

Tel. 848 42 31 98 | 848 42 35 28

Webgunean:

www.voluntadesanticipadas.navarra.es